

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 252. alea - 2020ko ekaina



**Harkaitz Aizpurua, txakur
trebakuntzan buru-belarri**

?

?

Zuhatzza
euskara elkarteak deba

euskararen aldeko **LEMA LEHIAKETA**

- **Euskara hutsean aurkeztu behar dira lemak;** jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izan behar dira (moldaketak onartuko dira).
- Edonork parte har dezake eta nahi beste lema edo esaldi labur aurkeztu.
- Ez da onartzen inolako irudi edo estereotipo sexistekin zerikusirik duen mezurik.
- **Lanak aurkezteko epea: ekainak 29, astelehena (12:00ak arte).**
- **Lanak Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoan** (Iifar kalea, 12 behean, tel. 632043322) **aurkeztu edo zuhatza2@gmail.com helbidera bidali beharko dira.** E-mailez bidaliz gero, bi fitxategitan bereiztu: alde batetik leloa eta bestetik egilearen datuak (izen-abizenak, adina, telefonoa eta helbidea).
- **Saria: Kultur otarrea (bertako sortzaileen kultur produktu ezberdinekin osatutakoa).**
- Saria eman gabe gera daiteke, epaimahaikoek hala erabakitzen badute.
- Parte-hartzaileek Zuhatzari lagatzen diote, eskusiban, esloganak erabiltzeko eskubidea.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak berez dakar oinarrian erabateko onespena.

animatu!

AURKIBIDEA

6

KOLABORAZIOA

Debako Ipuin
Kontalariak
Herrikoak Berriketan
atalean



8

ELKARRIZKETA

Jon Osa Azpiazu
igerilari gaztea
Debarrak Munduan
ataleko protagonista



10

ELKARRIZKETA

Txakur trebakuntzan
buru-belarri dabilen
Harkaitz Aizpurua
elkarrizketatu dugu



12

ERREPORTAJEA

Ezohiko uda dugu
aurrean,
"normaltasun berri" an
egonagatik



16

B. GAZTEA

Esker gutuna
irakurleei, ikasle
gazteen hausnarketak,
inkesta...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDAIA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saiburuondetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Alex Turrillas, Nagore Dorronsoro eta Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzioa

Publizitatea: Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria


Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Proiektu berriak eta bazkide-kanpaina laster abian

Kaixo, lagun!

Gutun honen bitartez, Zuhatza Euskara Elkartek dituen nahi edo asmoen berri eman nahi dizugu.

Aurten jasaten ari garen osasun-krisia dela eta, momentuz behintzat, ez dugu urteko bazkideen batzar orokorra egingo.

Hori horrela izanik, hemen helarazten dizugu etorkizun hurbilerako daukagun proiektua.

Urteak dira elkarte martxan hasi zenetik eta urte hauetan guztietan gizartea eta herria aldatuz joan dira. Ondorioz, elkartearen funtzionamendua garai berrietara egokitu behar dugula iruditzen zaigu, eta horretarako, egun hain erabilia den "sare"an edota komunikatzeko molde berrietan egon behar dugula uste dugu.

Egokitzapen horrek egun daukagun funtzionamendu edo antolakuntza

erlaldatu beharra eragin du. Batetik, giza baliabideak aldatzea dakar, eta ondorioz, elkarteak dituen soldatapeko langileen baldintzak eta kopurua aldatu dira; bestetik, proiektua aurrera eramanez ahal izateko baliabide material gehiagoren beharrea aurkitzen gara.

Baliabide horiek lortu ahal izateko erakunde publikoetatik (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Debako Udala) jasotzen dugun diru kopurua handiagotzea aurreikusten dugu, baina oraindik ere ebazpenen zain gaude. Dena den, proiektua aurrera eramateko hori ez da nahikoa, herriaren eta, batez ere, bazkideen babes eta laguntza nahitaezkoak dira guretzat.

Horregatik, orain hasi eta urte bukaerara arte, herrian dugun parte hartzea handitzen saiatuko gara, bide ezberdinak erabiliz.

Jada abian ditugu lehenengo egitasmoak: paperezko euskarria mantenduz *Berriketan* aldizkariaren azken aleak pdf formatuan ere kaleratu eta zabaldu ditugu, kontrazalak era musikatuan eta bideo euskarrian zabaldu ditugu, martxan daukagu euskararen aldeko lema lehiaketa eta, udazkenari begira, bazkide-kanpainari hasiera eman nahi genioke.

Esan bezala, egun daukagun proiektua sendotu ahal izateko eta aurreranzko jauzi bat egiteko herritar gehiengoaren babesa eta ekarpena behar ditugu, proiektua handia izanik denon laguntza behar dugulako.

Beraz, alde zuretik eskerrak emanez, jauzi honetan gurekin izango zaitugulakoan, agurtzen zaitugu.

Zuhatza Euskara Elkarteko
Zuzendaritza

URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartzka kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauean tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

Tene Mujika bekaren XV. deialdia egin dute, historia hurbilaz idazteko

Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak XV. Tene Mujika Beka sortu dute. 6.000 euroko dirulaguntza emango diote irabazleari.

Gure herriaren azken 70-60 urteetan izandako pertsona, talde, gertakari edo mugimenduren bati buruzko liburuak egiteko proiektuak aurkez litezke (adibidez: biografiak, kronikak, erreportajeak, saiakerak, elkarrizketak, ikerketak...); lanak jatorrizkoa eta euskaraz sortua izan beharko du, aurrez argitaratu nahiz saritu gabea.

Proiektuak aztertzean, bi ezaugarri hartuko dira batez ere kontuan: testuaren beraren kalitatea eta gaiaren intere-

sa. Ez da fikziorik onartuko baina bai materialaren lanketa literarioa, idazleak hala nahiko balu; dibulgazio-lan bezala egin litezke ikerketak, baina ezingo dira espezialistentzat bakarrik idatzi.

Azken deialdian bezalaxe, oraingo honetan ere Idurre Eskisabelek, Imanol Muruak eta Elixabete Garmendiak osatutako epaimahaiak aztertuko ditu jasotako proiektu guztiak, eta horien artean bat hautatuko du 2021eko urtarrila baino lehen, ikerketa lana bururaino eramateko.

2020ko abenduaren 9an amaitzen da proiektuak aurkezteko epea. Oinarriak ikusteko eta informazio gehiagorako: www.deba.eus ataria eta artxiboa@deba.eus posta elektronikoa.



Tene Mujika bekaren azken deialdia Iñigo Lopez Simon historialari bizkaitarrak irabazi zuen, Bilbon XX. mendearren erdialdean gertatu zen txabolismoa aztertuko duen proiektu batekin. Aurten ikusi beharko luke argia bere liburuak.

iritzia

Erantzunik bai?

Ziurgabetasun sentipena inoiz baino sakonago bizi dugun momentuetan, orain artean baimenik eman ez genion zaugarritasun berezkoari etxeko mahai bueltan aulkia eskaini behar izan diogu, halaberharrez. Egia absolutu twitterianoen garaiotan, zoriontasunaren giltza eskuratzeaz geundenean, haizea alde eta poparean gindoazela, zast: tupustean gelditu beharra. Dena, denok: kontrolagaizkeriaren mende.

Gelditzearen onura arrazoitu nahi izan dut, beti; ez dut uste pauso bizkorrean bizi behar honek pausorik dakarkigunik, oro har, inori. Baina halamoduan iritsi zaigun honek, erantzunik ekarriko zizkidalakoan, galderak, eta asko, sortu dizkit. Guztiok ere erantzunik behar ditugunean, galderak bakarrik datozkit

zintzurra. Neu ez naiz kapaz erantzuteko, eta ea zuk zer diozun.


Zer da zuretzat kontzientzia soziala? Hurkoaren ongizateaz diharduzun horrentzat, zer da zeurekoia izatea? Zein da erugabetasunaren perimetroa? Esaten eta egiten duzun artean, zeure buruarekin lasai bizi zara?

Eboluzio kognitiboaren lurralde berrietan birusak ekarri digun bidegurutze honetan, elkarri bide ematen asmatuko dugun zalantzari: bota hiru bertso, doinu eta neurri librean.

Lepoa moztu eta urdailari men eginez, garbi sentitzen dudak bakarra da beldurrari, bakardadeari, bizi-herioari, bihotz-minari eta gozamen beteari suharki helduz soilik izango dugula salbatzeko aukera, gizaldi eta gizaldietan, amen.



**RIKARDO
IDIAKEZ**



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



HERRIKOAK BERRIKETAN

DEBAKO IPUIN KONTALARIAK

Gure ipuinetan koroak sarritan agertu izan dira, errege eta erreginak baitira sarritan gure ipuinetako protagonista. Errege zintzoak, maltzurak, agintariak... baina horrelako koroaunik ez genuen ezagutzen, KORONABIRUSA. Oso arriskutsua omen da, eta hiru txerrixoen gisan, otsoaren hatzparretatik ihes egiten zutenean bezala, etxean gordetzeko esan digute, bestela... Hau da hau, jauregitik etxera! Ipuinak ispiluen gelako besaulkitik kontatzea hainbeste gustatzen zaigu... Baina koroa honek ere ez gaitu geldiaraziko! Ea, goazen pentsatzera... Ipuinetako aztiak eta sorginek ere lagunduko gaituzte honetan... Etxetik ere egin dezakegu! Kontalariok, prest? Gure etxeetako apaletatik liburuak astindu eta konfinamendua deitzen duten egoera hau arintzeko kontaktetarako prestatuko ditugu! Whatsapa martxan, mezuak barra-barra, nik asteazkena, nik larunbata, nik igandea, nik ezin dut... Ez du inporta! Talde bat gara eta bakoitzak ahal duen neurrian egingo dugu! Ikimilikiliklik!

Hara! Liburuak ireki da, Pablo Turrillasek kontalariontzat sortu duen

logotipo berria. Badoa zerrenda betetzen. Hamabost egunerako osatuko dugu... Oihanak asteazkeneko munduko txoko desberdinetara eramango gaitu; ostegunetan, kutxa bat betetzeko adina beldur ateratzeko prest da Mari; ostiralean Aiora txikiarekin jolasteko gogoz; Naiaren ahots jantzi eta dotoreak sorginaren erratzean bidaiari eramango gaitu, Amaia indarrak eta gogoak txiki eta handien gorputz arimak mugiaraziko ditu, Oihana eta Laiaren antzezpen elaboratuekin ezin detailerik galdu, Nerearen baratzeako kontakizunetatik barazki goxoak seguru, Joxerraren ahotsak barretxo bat ateratzen digu beti eta fitxaje berria (ongi etorri, Ane), kutsaduraren eraginaz arituko zaigu San Rokeren laguntzarekin.

Osatu dugu! Hamabost egunerako konpleto! Baina... Hau luzatzen doa! Ipuin gehiago behar dugu!!! Eta horrelaxe joan dira egunak, guztira 40. 38 ipuintxo, 23 gauerako istorio eta dantza, 2 greba egun... Munduko liburu-metarik altuenetik begiratuta, hurbil, etxetik eta Parisetik hodeiekin dantzan, Jainkosak usainean, eskeleto



andrea eta otxanda ilargia lapurtu nahian, otsoaren betilea eta foka larrua maileguan, Putetxeko atezaina, Martiña eta Eutemio Ruandan,... Eta ezin ahaztu 38 istorio haue-tako bestelako pertsonaiak: ñimiño eta erraldioak, izar iheskorak, aztiak, printze itsusiak, neba-arrebak, Doña Karmen, Naaku, otsoak, azak, ederrak, piztiak, herensugeak, arazolariak, zizareak, kezka-muxelak, ipotxak, Gaxuxa eta bere klariona, Dantzariño, Sofia, frigorifikoko behia, Txorimaloa, Hideane eta bere lagunak, Karol eta oilo grebalariak,... Eta bukaeran POZA. Lortu dugulako, etxetik ateratzeko aukera eman digutelako eta, horretarako, guk geuk, hainbat bizipen, anekdota, istorio... berri bizi behar izan ditugulako. Jakingo bazenute...

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

Euskotren: Sakonetako lanak amaituta eta udako tren-ordutegiekin dagoeneko

Maiatzaren bukaeran amaitu zituzten Sakonetako luiziaren ondoriozko premiazko lanak eta ekainaren 1ean berrekin zitzaion Deba eta Zumaia arteko tren-zerbitzuari. Joan zen azaroan Sakoneta II tunela itxi zuen luiziak eragindako arazoak gaindituta, hortaz, hilabete hauetan Donostiarako norabidean emandako autobus-zerbitzua bertan behera geratu da.

Egokitzapenak 3,6 milioi euro inguruko gastua eragin du, horietako 1,2 milioi autobusak erabilia egin diren ordeko bidaietarako. Halaber, 1.400 metro trenbide berriztatu dira, 3.000 metro kubiko lur hondeatu eta hondakindegira eraman dira, eta 400 metro lineal mikropilote, 1.400 metro lineal buloi eta 800 metro zertxa erabili dira, guztiak ere eusteko lanak egiteko.



Euskal Trenbide Sarea

Aurten, bizi dugun egoera kontuan hartuta, Euskotrenek udako zerbitzuak aurreratzea erabaki du. Beraz, udako ordutegia ekainaren 8an jarri du abian tren-, metro- eta tranbia-zerbitzuetan. Debaren kasuan, hortaz, trenak ordu erdiro izango ditugu Bilborako noranzkoan eta Donostiarakoan, berriz, ordu betero -informazio zehatzagoa: <https://www.euskotren.eus/eu/tren->.

Eskualdeko industria eredia berpiztearen aldeko ituna sinatu dute

“Industria jarduera eta enplegua indartzea” helburu dituen adierazpena sinatu zuten BPTD Enpresa Elkarteak (*Basque Precision Technology District*) eta Debabarreneko hainbat alkatek ekainaren 11n, Debegesak Eibarren duen egoitzan, “enpresa-sare lehiakorra eta iraunkorra sustatzeko helburuarekin eta garpunen industrialia bultzatzea lehenetsiz”.

Sinatu duten hitzarmenak lau puntu ditu: “BPTD Enpresa Elkartearen lankidetzajarduerak babestea, eskualdearen

eta industriaren alde”; “eskualdearen industrializazio jasangarria indartzeko eta hobetzeko bokazioa areagotzea, klimaren aldeko errespetuz”; “ahalegin publiko-pribatu horretan udalez gaindiko administrazioen parte-hartzea eskatzea, lurralde-oreka hobetu eta Debabarrenaren ahalegin eta bokazio industrialia gehiago aitortzeko”; eta “inguruko eskualdeekin elkar-hartzea lurralde-oreka ahalbidetuko duen estrategia ahalbidetzeko”.

Uztailaren 12an izango dira hauteskundeak eta zabalik da posta bidezko bozkarako epea

Maiatzaren 18an Iñigo Urkullu lehendakariak uztailaren 12rako deitu zituen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Aipatu zuen larrialdi-egoera gainditu dela, eta datozen asteetan koronabirusa gehiago zabalduko balitz, hauteskundeak irailean edo urrian deitzeko aukera egongo litzatekeela. Horrez gain, arrazoi juridikoak ere aipatu zituen Urkulluk bere erabakia justifikatzerakoan: “Ez dugu jarduera parla-

mentariorik eta hauteskundeak urriaren 25a baino lehen egin behar ditugu”.

Posta bidez bozkatzeko epea zabalik da jadanik. Hona hemen jarraibideak: uztailaren 2ra bitartean jaso eta erregistratu ahalko duzu eskaria posta bulego batean; ekainaren 22tik uztailaren 5era bitartean, dokumentazioa gutun ziurta-tu bidez bidaliko dizute; ekainaren 22tik uztailaren 8ra bitartean, eman posta bidezko botoa posta bulegoan.



IRAIA AGIRREZABALA

Haziak eta bizia

Gezurra badirudi ere, gizakion gorabeheraz aparte bizitzak jarraitzen du. Gozatu egiten dut landareei begira, nola ernetzen diren, nola hazi, nola loratu...

Aste zail hauetan bizitzarekin kontaktatzeko modu bat izan da landareekin kontaktuan jarraitzea. Hainbat egunetan gure egongelak oihan txiki bat zirudien arren, kuia, kuiatxo, etab.en haziak nola zetozen ikusteak bizipoza sorrarazten zidan.

Ez da gauza handirik behar; lur pixka bat, edukiontzia (berrerabil ditzagun ontziak, badirudi-eta zaborren auzia ahaztu zaigula!), eta gustuko dugun edo dastatu nahi dugun horren hazia. Laster dator tomate eta piperren garaia eta orain balkoietan horrenbeste denbora pasatzen dugularik ideia zoragarria iruditzen zait gure balkoi eta etxeko txokoak ere bizirik ikustea, hazten, aldatzen, eraldatzen.

Irakurleren baten interesekoa izan daitekeelakoan, jarraian idatziko dizuet ekainean erein (hazia lurrean sartu) eta landa daitezkeen landareen zerrenda.

Erein: azakiak, arbia, artoa, babarruna, errukula, letxuga desberdinak, zerba, erremolatxa, azenarioa eta abar.

Landatu: azakiak, letxuga desberdinak, zerba, erremolatxa, borraja, apioa, kuia, kuiatxo, luzokerra, tomatea, alberjina, piperrak, porrua, albahaka eta abar.

Zerrenda honetan barazki asko falta dira eta probak egiteko uste gabe etxean ere baditugu haziak; ba al dakizue nola lora duten dilistek edo babarrunek?

Barazki bakoitzaren sasoiari eta ezaugarriei buruz ikasteko modu erakargarria da niretzat. Esperimentatzera gonbidatzen zaituztet.



Debarrak munduan

JON OSA AZPIAZU

AEBetan (Fort Lauderdale, Florida) jaio zen Jon Osa eta duela hamar urte, zortzi urte zituela, etorri zen amaren jaioterrira, Debara, bizitzera. Bertan pasatzen ditu udarak beti, familiarekin. Igerilari trebea da txikitatik eta urteak daramatza lehiaketetan parte hartzen; gaur egun, Eibarko Eibar Igerixan taldean entrenatzen jarraitzen du. Iaz, Saint Louiseko UMSL Unibertsitateak ikaske-ta-beka bat eskaini zion eta han egiten du ia urte osoa: **‘Betidanik izan da nire ametsa Estatu Batuetan ikasi eta igeri egitea, eta ezin nuen aukera hau galdu’.**

Non zabilta gaur egun? Zergatik?

Orain bertan, pandemia honengatik, Deban nago, baina ia urte osoa Saint Louisen (Missouri, AEB) igarotzen dut. Bertan International Business ikasten ari naiz eta Unibertsitateko Tritons taldean igeri egiten.

Zerk eraman zintuen hara?

Beka interesgarri bat eskaini zidaten. Euskadin, unibertsitatean ikasi eta aldi berean kirola egitea oso zaila da eta Estatu Batuetan aukera gehiago daude. Unibertsitatean bertan dauka- gu igerilekua eta dena koordinatuta dago.

Ikasten eta igeri egiten zabilta, hortaz?

Bai, ikasi eta igeri egiten dut. International Business ikasten ari naiz, zuek ulertzeko, hemengo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza bezalakoa da. Ikasteaz gain, lanean nabil. Igeriketako ikastaroak ematen ditut eta, egia esan, oso gustura nabil.

Espero zenuen bezalakoa da zure bizilekua? Zerk harritu zintuen?

Estatu Batuak pelikuletan ikus ditzakezun modukoak dira, berdin-berdina da. Batzuetan ez du ematen benetakoa izan daitekeenik, baina bai, berdina da. Ameriketako bizitza oso desberdina da. Beti daukazu zer eginga. Nire ustez, denbora hobeto aprobetxatzen da. Gehien harritu ninduen gauza segurtasun falta da. Ni bizi naizen tokian ez dizute aholkatzen gauetan irte- tea, oso arriskutsua delako. Hiri handia da eta ni ez nengoen horretara ohituta Deban.

Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Estatu Batuetan nagoenean ingelesez hitz egiten dut gehien-



bat. Gurasoek deitzen didatenean edo edozein senide eta Euskal Herriko lagunekin, berriz, euskaraz hitz egiten dut. Nire ustez, gaur egun euskara dakigunok gehiago erabili beharko genuke jendeari ezagutarazteko. Unibertsitatean Madrilgo batekin eta Bartzelonako batekin nabil, eta askotan nire hizkuntzarekiko interesa erakusten dute. Batzuetan euskaraz egiten saiatzen dira, baina beraientzat ez da erraza!

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txirikik edo?

Saint Louisen ingelesez bakarrik hitz egiten da, baina bertako herritarrek beraiek sorturiko hitzak gehitzen dizkiote hizkuntzari. Hitz horiei “Slang” deitzen zaie. Horregatik, estatu bakoitzean entzun dezakezun ingelesa desberdina izan daiteke.

Atzeritar asko daude Estatu Batuetan eta horrek hizkuntza gehiago ekartzen ditu herrialdera.

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Familia eta lagunak eramango nituzke Saint Louisera, beraien falta urtean zehar asko igartzen dudalako. Debara, berriz, han dauden janari azkarreko jatetxe guztiak ekarriko nituzke.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bai. Ez dakit noiz, baina egunen baten bueltatuko naiz Debara bizitzera.

Laburrean

Paisaia bat:

Debako hondartza

Usain bat:

Galtxako ogi freskoaren usaina

Zapore edo jaki bat:

amamaren patata tortilla

Gustuko dut...

lagunekin parranda egitea

Ez dut gustuko...

segurtasun falta

Amets bat:

olinpiar jokoetan parte hartzea

Sei ikuskizun eskainiko dituzte aurtengo Iturri Ondoan egitasmoaren baitan

Iturri Ondoan egitasmoaren zazpi-garren edizioa egingo da aurtan, modu xelebrea bada ere, Covid-19ak markatuko baitu aurtengo programa. Batetik, plaza zaharreko iturri ondotik, aurtan, iturririk gabeko txokora pasako dira ekimenak: Euskal Jolasera. Bestetik, neurri zehatzak hartu beharko dira elkar kutsatzea saihesteko. Egitaraua uztailearen 3an abiatu eta abuztuaren 7an amaituko da; eta, tartean, sei hitzorduz izango dira, ostiraletan, 22:00etan.

Uztailearen 3an, **“Matriuska”** antzerki emanaldiaz gozatzeko aukera izango da. Amancay Gaztañagak eta Iraia Eliasek elkarlanean sortutako obra da, Donostiako Poltsikoko Antzerkia sorkuntza deialdian saritua.

Hilaren 10ean, **“Iturrian Jazz”** izango da ikusgai. Debako herritarrekin osatutako emanaldia da; bertako istorio kontalariak bertako jazz musikari inprobisatzaileekin ondutako lana. Ainitze Agirrezabala, Iraia Agirrezabala, Mikel Aizpurua, Itziar Egidazu, Oihana Iruña eta Mari Seara izango dira kontalariak, eta Iñigo Ruiz de Gordejuela eta Josu Salegi, berriz, musikariak.

Astebete beranduago, uztailearen

17an, **“Begiradak”** emanaldiaren zazpi-garren edizioa egingo da. Herriko irudigileek bideoak eta argazkiak egin dituzte, beste hainbatek literatur testuak sortzeko. Saio honetan, irudiak proiektatu eta zuzenean entzungo ditugu sortzaileek osatutako piezak euren ahotsean.

Idazleak hauek dira: Iraia Agirrezabala, Antton Aizpurua, Goizane Aizpurua, Eider Aldalur, Ketxus Amasorrain, Rexu Arakistain, Lander Aranberri, Manex Astigarraga/Alex Turrillas, Nagore Dorronsoro, Rikardo Idiákez, Arantza Iriondo, Itsaso Iciar, Julia Ron, Ainara Sedano, Mattin Urbietta eta Amaia Zinkunegi. Irudigileak, aldiz, honako hauek: Nerea Aizpurua, Inma Alberdi, Willy Berasaluze, Iñaki Elosua, Aritz Mancisidor, Aitor Oñederra eta Uxue Pascual.

Lau bertsoz (Unai Iturriaga, Nerea Ibarzabal, Miren Amuriza eta Julio Soto) osatutako **bertso saioa** egongo da uztailearen 24an. Hurrengo ostiraletan, hilaren 31n, **“Sagartu”** (dantza eta antzerkia) ikuskizuna izango da, eta, abuztuaren 7an, berriz, **Izaki Gardenak** taldearen kontzertua.

Jarraibideak: Udalak antolatzaileen jarraibideak errespetatzeko eskatu die herritarrei (programan ere jakinaraziko dira): sarrera-irteeretan, adibidez, derrigorra izango da maskara eramatea; sartzean antolatzaileek emango diete gela ikusleei, eta ikusleak esertzeko aretozainak egongo dira; ezingo dira aulkiak mugitu; jan/edatekorik eramanez gero, poltsa eraman hondakinak jaso eta etxera eramateko; ekitaldiak 16 urtetik gorakoentzat dira (2003an edo lehenago jaiotakoentzat).

Bertan behera utzi dute Animadeba jaialdiaren 13. edizioa

XIII. Debako Nazioarteko Animazio Zinemaldia –Animadeba– bertan behera uztea erabaki dute Animadeba Elkarteak eta Debako Udalak, koronabirusak eragindako egoera honetan bizi dugun ziurgabetasuna dela eta. “Nahiz eta, momentuz, osasun agintariek ekitaldia etetera ez behartu, ez bidaiatzeko emandako gomendioek, aretoko edukiera murrizketek eta garbitasun neurri gogorrek zaila jarri dute irailaren 3tik 6ra ospa-

tuko litzatekeen ekitaldia normaltasunez gauzatzea”, argitu dute hedabide-etara igorritako oharrean.

Jaialdiko arduradunek elkartasuna adierazi dieten eragile publiko eta pribatuak eskertu nahi izan dituzte –babesleak, zuzendariak, ekoizleak, hornitzaileak, laguntzaileak eta, nola ez, zinemaldia urtez urte jarraitu duen publikoa–. Era berean, dagoeneko 2021eko edizioa antolatzen hasiak direla ere adierazi dute.



PATXI AIZPITARTE

Bakarrik hil beharra

Ez dakit gure egunerokoan eta gizarte bizitzan aldaketa sakonik gertatuko den, Covid-19ak sortu duen osasun krisia gainditu eta normaltasunera itzultzen garenean. Baina ekarri digun ekonomia eta lan krisiaz gainera, uste dut lagundu digula gure arteko hainbat arlo, lan eta zerbitzu lehen planoan jartzen, beren beharraz jabetzen eta era zuzenagoan balioztatzen. Azpimarratua eta txalotua izan da osasungintzako profesional eta langileen jardura baliotsua, eta agerian jarri da hainbat oinarriko zerbitzu eta lanen garrantzia ere (dendari, hornitzaile, garraiolari...).

Osasungintzako profesional eta langileen eta, aldi berean, zaharren egoitzetako zaintzaileen paper, eguneroko lan eta emate jarrerak aitorten indartsua izan du asteotan. Zekiten, ahal zuten eta zeukaten guztia jarri dute beren zaintzapeko gaixo, ezindu eta zaharren alde. Gainera, pandemiaren eraso hain handia eta erraz hedatzekoa izanik, lege, neurri, eta protokolo aldakorak aplikatu behar izan dituzte denbora gutxian. Ulertzekoa da, beraz, zaintza eta ekintza terapeutikoak kontuan beharko litzukeen alderdi guztiei ez erreparatzea.

Baina, zilegi bekigu koronabirusaren krisiak jo gaituenean bakarrik hil behar izan duten hainbat pertsonaren zoriaz galdetzea. Bidezkoa da planteatzea ea proportzionala edo neurrikoa izan den hainbat pertsona bakarrik hiltzen uztea, berak maite zituen eta bera maite zutenengandik apartatuta. Argigarria benetan Covid-19a duten gaixoez beren bizitzan akaberan eta ahulezia egoera berezian, lagunduak izateko eta arreta espirituala jasotzeko duten funtsezko eskubideari buruz Espainiako Bioetikako Batzordeak apirilaren 15ean eginiko adierazpena.

HARKAITZ AIZPURUA



“Ez dugu sinesten gure txakurrak harremanetarako duen ahalmenean, eta gure beldurrak proiektatzen ditugu berarengan”

“Bere bizitza bide batetik zihoan arren, bidegurutze batean bere interesguneen bideari jarraitzea erabaki duen mutil deberra naiz”. Hitz horiekin aurkeztu digu bere burua Harkaitz Aizpuruak elkarrizketa honen hasieran. Mekanikari lanetan ez ezik, txakur hezitzaile edo *mushing*-ean ere ibiltzen da. Bi hilabete egin ditu Suedian, eta beste hainbeste Katalunian.

Mekanikari, txakur hezitzaile, *musher* aritzeko ikasten... zertan zabilta azkenaldian, Harkaitz?

Aitona, aita eta gero ni ere mekanikari. Neurri batean tokatu egin zitzaidan... baina txikitatik konpondu izan ditut kotxe, motor eta bizikletak, abildadea berezkoa, eta gustukoa. Hala ere, txakurren mundua agertu zitzaidan, barruan zerbait mugitu, eta horri heltzea erabaki dut. Gaur egun txakurren talde sozialak osatzen, hainbat kasutan laguntzen etab., horrez gain, *mushing*-ean entrenatzen eta ikasten ere banabil. Dena dela, mekanikari bezalako ofizio bat izateak laguntzen du beste guztia aurrera eramateko, tarteka behar izanez gero...

Hainbat hilabete egin dituzu herritik kanpo, ezta? Non ibili zara? Zertan?

Bi hilabete pasatxo eman ditut Suedian, Lillholmsjön-en, *mushing*-ean aritzeko ikasten. Iazko abenduan joan nintzen (Suediako esperientziaren bideo bat esteka hau jarraituta duzue ikusgai: <https://labur.eus/SyJYB>). Gero konfinamenduak beste bi hilabetez Katalunian harrapatuta eduki nau.

Nondik piztu zitzaizun txakurrenganako zaletasun, pasio hori?

Gurasoek izan zuten txakurra, amamak eta *abuelak* ere bai... beti izan ditut gustuko. Elur izan zen nire lehen txakurra, 2011n.

Elur eta Eki malamuteekin neukan proiektua. Tiratzeko txakurrak dira malamuteak, kamioi diesel modukoak, beste rollo bat, oso bereziak, erabat instintiboak. Orain ikusi dut malamuteak daramatzaten *musher*-ak lasai joan ohi direla: eskimalen mundua dakarte gogora. Baina biak pozoinduta hil ziren, barraskiloak hiltzeko pozoia, metaldehidoa, janda.

Txakur hezitzaileen munduan oso murgilduta ikusi zaitugu azken urteotan, hainbat ikastaro ere egin dituzu Madril edo Bartzelonan.

Saio eta hutsegite bidezko ikaskuntza izan da. Ikusten nuen Elurrekin ezin nuela konektatu trebakuntza klasiko batez. Malamuteei txakur primitibo ere deitzen zaie, arraza nordikoak oso ainguratuta daude beren sustraietan; beste arraza batzuk, berriz, orain dela 100 urte asmatutakoak dira. Paktu bat egon zen gizakiarekin elkar laguntzeko, orain gizakiaren esku hartzeagatik, txakurretan arraza mordo dago, 400 baino gehiago, batzuk oso berriak. Paktu hori beste animalia etxekotuekin ere egon da, baina otsoa da horrietatik harrapari den bakarra, besteak harrapakin dira, eta harrapakinak hezteak beti da errazagoa. Horregatik da zaila batzuetan ehi-zarako eta horzka egiteko instintu hori kontrolatzea. Bertako artzain-txakurrari ere gertatzen zaio, horzka txikia egiten diela ardiei.

Zertan oinarritu behar da, zure ustez, txakur heziketa?

Observazioan, baina horrek hasieran izugarrizko zama jartzen du zugaran, konturatzeko zara-eta zure emozioek txakurrarengan eragina dutela, eta gizaki askok nahiago du hori ez onartu. Ez dugu sinesten gure txakurrak harremanetarako duen ahalmenean, eta gure beldurrak proiektatzen ditugu berarengan.

Umeeekin bezala, laguntza izan behar duzu txakurrarentzat, bere etapa bakoitzari egokituta, eta ez esku hartu bere esperimentazioan. Heziketa honek txakurra eta gizakia erlazio paralelo batean jartzen ditu, ez erlazio piramidal batean. Joera aldaketa gertatzen ari da, haur hezkuntzan gertatu zen bezala. Mintegi horietan ikasi dut txakurren estresaz, antsietateaz, gure munduan sartu izanak ekarri dizkien zailtasunez, txakurrikiko enpatiaz eta, batez ere, konfiantzaz.

Zer esango zenuke dela txakurren hezitzaileen mundu horrek eman dizuna?

Lortzen duzun harreman berezia, eta, batez ere, zu aldatzen zarela. Behin txakurren emozioak kudeatzeko ikastaro bat egiten ari nintzela, ispiluari begira, pentsatu nuen “eta zuk? Zuk nola kudeatzen dituzu zure emozioak?”. Orditik askoz hobeto eza-gutzen dut nire burua, emozioak sentitzen, aztertzen saiatzen naizelako aldiro, eta hori



abiapuntu bat bada behintzat hobetzeko. Txakurrek asko irakasten didate nire buruaz.

Eta kendu?

Animalia soziala dela ohartzen zarenean, txakur taldeak egiten dituzu edo horietan ibili, eta horrek, jakina, lana ematen du eta denbora kendu. Baina talde horietan orekarako joera sortzen da, horregatik, txakurren beldurrak gaintzeko, adibidez, ezinbestekoak dira. Gizakiaren beldur nagusi izaten dira txakurren arteko liskarrik, baina gutxieneko espazioa eskainita, beraiek bakarrik askoz hobeto erregulatu dira. Batzuetan gure txakurraren arazoren bat onartzea izaten da egoera hobetzeko lehen pausua, apartatu egiten zarelako eta konfiantza izan. Baina gure beldurrak gaintu behar ditugu horretarako lehendabizi, berdin errepideekin, berdin janariarekin... Begira zaudela, utzi esperimintatzen arrisku posibleak ezagutzen joan dadin.

Gero sartu zinen mushing-aren munduan. Nondik nora iritsi zinen horra?

Mendian, elurretan eta *snowboard*-ean ibiltzea gustuko nuenez, horrekin bat zeterren txakurra hartu nuen. Ahal bada norbere bizimoduarentzako aproposa den txakurra ekartzea inportantea da. Gero *canicross*-a ere egiten hasi nintzen Elurrekin. *Canicross*-a eta *bikejoring*-a (bizikletarekin) lera tiratzen duen txakur taldeko liderra entrenatzeko erabiltzen dira, baina egun *monodog* (txakur bakarreko) kirol bihurtu dira. Ni *monodog*-ean hasi nintzen, baina mintegi batean Montse Clavelon *musher* kataluniarra ezagutu nuen, eta berarekin joan naiz Suediara, *handler* modura, laguntzaile.

Zertan datza zehazki mushing-a?

Herri kirolak gogorarazten dizkit niri. Garraio behar bati erantzuteko sortu zen txakurrez tiratuko leren kirol hau. Munduko lasterketarik luzeena egun Alaskan egiten da, *Idi tarod*, eta honakoa du jatorria: garai

batean diferentziatik garraio bideak ezin iritsita geratu ziren eta bospasei *musher*-en artean lortu zuten 1200 km egitea antidoto bat ekartzeko. Kirol modalitateetan batetik txakur nordikoek osatua, eta bestetik, txakur ehizatarietako osatua edo irekia daude. Distantziaren arabera, berriz, spring (5 km), distantzia erdia (30-35 km), eta distantzia luzea (300-1200 km). Gutxienez bi txakur eta txakur kopuru mugagabera arte eraman daitezke. Azkarrena 6 txakurrekoa izaten da.

“Obserbazioan oinarritu behar da heziketa. Zure emozioek txakurrarengan eragina dute eta gizaki askok nahiago du hori ez onartu”

Azalduguzu nolakoa den zuen egunerokoa, eta musher-en lasterketa horiek.

Handler-aren lana gogorra da. Entrenamendua baino bi ordu lehenago txakurrak lo-lekutik itxitura zabal batera ateratzen ditugu eta guztien ongizatea ziurtatu behar izaten dugu: jana zaindu, kakak ondo begiratu, ur nahikoa edaten ez badute haragidun zopak eman... Batez ere oin azpia da garrantzitsua, goizean goiz elurraren arabera erabaki behar duzu krema bereziaz gain galtzerdiak jantzi ala ez. Tentsio handia egoten da entrenamendu hasieran eta bukaeran, txakurrak urduri egoten direlako, eta zein lotu leran lehenengo, zein gero... dena zaindu behar da. Montsek bi lasterketatan hartu du parte han geundela, eta horietan bereziki tentsio handia izaten da, txakur asko egoten dira eta ordutegiak zorrotz zaindu behar izaten dira. Lasterketan, txakurrak ezagututa neurtu behar duzu beren erresistentzia, tenperaturarekiko jasangarritasuna, motibazioa, burua... dena. Eta lasterketa ostean batzuei berokiak jantzi, beste krema bat eman eta abar.

Zenbat txakur dituzu orain? Zelako harremana izan behar du musher-aren eta bere txakurren artekoak kirola gustura egiteko?

Orain bost ditut, hiru *mushing*-erako egokiak, haskiak, eta lehendik adoptatuak nituenak besteak: galgoa eta artzain-txakurra. Azken biak ere oso ondo dabilta; artzain-txakurra da liderra, *kar-kar-kar!* “Kenel”-ek txakurtegia esan nahi du eta *musher*-ak beraiekin bizi dira han, hau da, azkenean bizi estiloa dela, lotura estua lortu nahi baduzu behintzat. Giltzarria da beraiek disfrutatzea eta zuk ere bai; beti motibatuta eta osasunez ondo dauden jakitea, obserbazioaren bidez.

Arazako hainbat txakur, elurretan egiten diren probak, garraioa, azpiegitura... hau kirol garestia dela esango al zenuke?

Bizi estilo modura hartzen baduzu ez hainbeste, gutxika gastuak murrizten dituzu, eta gainera hori da zure afizio nagusia, zure porrak... dena.

Deban bizitzea eta musher aritzea bateagarriak dira? Adibidez, nola entrenatzen zarete zu eta zure txakurrak?

Negua bada Pirinioetara edo mugitzen gara, bestela, *dryland* estiloan (lehorrean) entrenatzen gara hemen. Inportanteena hotza denez, pixka bat mugituta entrenatzeko leku egokiak aurki ditzakezu, adibidez, Arabako lautadan.


Non edo zer bizi-proiekturen bueltan ikusten duzu zure burua datozen urteetan?

Deba eta pasio hau gauzatzeko erraztasunak eskaintzen dizkidan herriaren (Suedia edo Noruega, adibidez) artean nahi nuke egin bizimodua. Bestalde, zentro edo hotel caninoa (eguneko zaintzaleku bat) ere antolatu nahi nuke, egunetz etxetan gaizki egoten diren txakurrei taldean ibiltzeko eta hezteko aukera bat emango dien lekua.



EZOHIKO UDA DUGU AURREAN, "NORMALTASUN BERRI"AN EGONAGATIK

"Normaltasun berri"aren atarian aurkitzen garen honetan, ez dirudi ziurgabetasun eta zalantza giroa gainditu dugunik. Zaila da aurrekaririk gabeko egoera honetan gertakizunak aurreikustea, eta beraz, erakundeek unean uneko erabaki berriak hartzen dituzte. Hala ere, han eta hemen informazioa jasota, aurtengo uda-denboraldiak geurera ekarriko digunera ahalik eta gehien gerturatzen saiatuko gara.



Konfinamendua arintzeko hirugarren fasera igaro ginen ekainaren 8an. Bi berritasun nagusi ekarri zituen fase aldaketak. Batetik, Eusko Jaurlaritzak COVID-19 izurritearen kudeaketaren ardurua osoa hartu du; eta, bestetik, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarrak herrialde batetik bestera ibil gaitzke, inolako mugarik gabe. Ondo bidean, ekainaren 21etik aurrera "normaltasun berri"an geundeke. Egoera horretan, hala ere, higie eta distantzia-neurriek indarrean iraungo dute.

Hori horrela, pentsatzekoa da aurtengo udak ez duela aurrekoen antz handirik izango. Udatiar edo turista kopuruari ez ezik, uda sasoiari hainbestek bisitatzen dugun hondartzari ere eragiten diote zuzenean neurri horiek, baina baita guraso eta haurrentzat hain garrantzitsu bilakatu diren udalekuei ere, eta, nola ez, udan protagonista diren beste jarduerari nagusiei: kultur ekitaldiei eta herriko jaiei.

Hondartza

Udako denboraldia uztailaren lehen hasiko da ofizialki, baina ekainaren 15etik aurrera dago sorospen-zerbitzua martxan. Horrez gain, aurtengoa ez da toloak alokatzeko aukerarik izango eta Zurrumbiloren lokalaren alboko kabina eta aldagelak itxita egongo dira; sorosleak izango dira bertan. Hondartzan lekua irabazteko helburuarekin, soroslearen egurrezko kabinarik ez jartzeaz gain, beste aldaketa batzuk ere egingo dira: boleibolearen jolasteko sarerik ez da jarriko (talde-kirolak ezin da egin); gaikako zakarrontzirik ez da izango hondartza barruan, pasealekuan jarriko dira sei gune ezberdinetan banatuta; 11 dutxa ere pasealekuari itsatsita jarri dituzte.

Mugikortasun mugatua duten pertsonen bideratutako bainu egokitua ahalbidetzeko egurrezko bi pasabide nagusi (sartzeko eta irteteko) egongo dira elkarren alboan pasealekutik soroslearen dorre-ara, horrela, aulki anfibiora iristea errazteko. Hala ere, hura erabiltzeko eskaera aurreko egunean egin beharko da.




IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



EH Bilduko Antxoka Elorza zinegotziak **Berriketan**-i azaldu dionaren arabera, hondartzaren edukiera Aldundiak jarriko duen sistema baten bitartez egongo da kontrolatuta. Aplikazio bat sortuko dute semaforo-koloreen bitartez Gipuzkoako hondartza guztien egoera zein den adierazten duena. Orain dauzkagun kamaren bitartez kontrolatuko da edukiera, eta ordu erdiro informazio berriztua jarriko da web-orri batean.

Udalekuak eta haurrei laguntzeko sarea

Udalekuei dagokienez, bete beharreko neurri zorrotzek udalekuen bideragarritasunean eragiten zituzten muturreko zailtasunez jabetuta, bai foru aldundiek bai hainbat udalek urtero antolatu ohi dituztenak bertan behera uztea erabaki dute, hori izan da Debako Udalaren kasua ere. Hala ere, Kulunka dantza taldeak edo Ingeles Eskolak antolatutako udalekuak izango dira, esate baterako, formatu txikiagoan.

Euskal udalekuen faltak eta egoera berezi honek batez ere egoera zaugarrian dauden familiek lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko duten zailtasuna areagotu dutenez, Debako Udalak behar handiena duten haurrei laguntzeko boluntarioz osatutako hezkuntza-zaintzako sarea sortzeko deialdia egin du, ekainaren 22tik aurrera martxan izateko asmoz.

Udaleko Gizarte Zerbitzuen saila, ikastetxeak, Gaztelekua eta Kolore Anitz Aisialdi Taldea (Zuhatza) aritu dira proiektuan elkarlanean. Egitasmo honen helburua, behar gehien duten haurrei, hezkuntza arloan indartzeak, euskararen mintzapraktika eta bestelako

aisialdi eta kirol-ekintzak eskaintzea da. LH1etik LH6ra eta DBHko haur eta gazteei zuzenduta egongo da. Oraingoz 10 irakaslek eman dute izena eta herriko hiru kirol elkartek (Zurrumbilo, Debakayak eta Iruleak). Haur eta gazteen zerrendak eskolako zuzendari eta orientatzaileekin osatu dira eta Gizarte Zerbitzuetatik egoera zaugarrian daudenei lehentasuna eman zaie, oraingoz 43 haur eta gazte daude zerrendan. Boluntario gisa parte hartu nahi izatekotan, Udaleko eus-kara zerbitzura idatzi behar da: euskara@deba.eus.

Itziarren, aldiz, ordezeko proposamena moldatu du Auzo Udalak ekainaren lehenengo astean herriko eragile nagusiekin antolatutako krisi batzordearen (urte bukaerara arte izango dute martxan) ekimenez. Haur eta nerabeei (5-12 eta 13-16 urte bitarteko) zuzendutako "aisialdi ibiltaria" egingo dute uztailean. Ekintza guztiak aire librean eta naturarekin harreman zuzenean egitea dute helburu; gehienez 10 laguneko taldeak osatuko dira (begiraleak barne) eta funtzionamendu ibiltaria izango dute, horrela, kanpoan ibilita, eta Auzo Udaletik atera gabe, osasun bermea izango du aisialdiak. Hiru orduko iraupena izango du aisialdiak goizero, eta eguraldi on zein txar (egoki jantzita), egingo dituzte irteerak.

Jaiak eta ekimen kulturalak

Egoera berezi honek hartara beharturik, San Rokeak eta Kopriaxak bertan behera utzi dituzte udalek. Itziarko Auzo Udalaren kasuan, festak girotu ohi dituen aurreko jubilatuen eguna ere bai. Bestalde, Deban hainbat ekimen kulturali eutsi diote. Horien artean daude Tene Mujika bekaren deialdia edo Iturri Ondoan egitasmoa.

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

No. 379

Higiezin Zerbiztuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net



SABAS BEDIAUNETA
29 urte
Zurrunbilo elkarte kidea

Hilabete inguru bada urkirolak praktikatzeko aukera dugula. Arazorik izan dizue hondartzan eta lokalean hartu beharreko neurriekin?

Surf elkarte bezala, Zurrunbiloko bazkideak zein surfleriak orokorrean ondo informatuta mantendu behar ditugula uste dugu eta horretarako ahaleginak egin ditugu hasieratik. Horregatik, itxialdian geundenean hainbat bilera izan genituen Gipuzkoako

“Surflariak orokorrean segurtasun-neurriak eta jarraibideak betetzen ari dira”

Surf Federazioa eta Gipuzkoako surf elkarteekin guztion segurtasuna bermatzeko protokolo bat adostu eta kaleratzeko. Udalarekin ere etengabeko harremana izan dugu hasieratik eta gomendioak zabaltzeko orduan kontuan izan dituzte guk esandakoak.

Hasierako egunetan jendeak zalantza eta surfa egiteko gogo handia zituen, eta mezu edo dei dezente jaso genituen zer egin zitekeen eta zer ez galdetzen. Gehiengoetan guk ez geneukan erantzuna, BOEK esaten zuena azaldu eta gomendioak eman besterik ezin genuen egin. Egia esan, egun nahiko zoroak izan ziren...

Maiatzaren 17tik aurrera Zurrunbilo biltegi bezala bakarrik erabil daiteke. Ezin da barruan aldatu, ezta dutxatu ere. Guztion segurtasuna ber-

matzeko lokalaren garbiketa-maiztasuna handitu, sarreran hidroalkohol pote bat jarri, eta Udalarekin protokolo bat adostu dugu. Horrez gain, berriki Udalak desinfekzio-lanak egin ditu lokalean.

Momentuz, fase berri batean sartu arren, lokalaren erabilpenean muga berberak ditugu.

Desberdina izango da hondartzako denboraldia aurreten. Horrek nola eragingo dizue zuei?

Hondartza-denboraldian zehar ur-kirolak praktikatzeko ezingo gara hondartzara edozein sarreratik sartu: Miramar-eko “ranpatik” edo Ondargain atzeko sarreratik sartu beharko dugu, eta bertan jarri dituzten dutxetan dutxatu beharko gara. Bestalde, surfaren kasuan distantzia ez da

zailtasun edo oztopo bat. Egoera normalean ere bi metroko distantzia egoten da surfleriaren artean, beraz horrek ez du aldaketa handirik ekarri.

Aurreko urteekin alderatuz, zer eskaintza egingo dizue oraino?

Uda honetan Udalak sortu duen Hezkuntza Sarean hartuko dugu parte bertako haurrei surf ikastaroak emanez.

Eskaera edo gomendiorik egin nahiko zeniekete hondartzara etorriko direnei?

Surflariak orokorrean segurtasun-neurriak eta jarraibideak betetzen ari dira, beraz, horrela jarraitzeko eskatu nahi diegu. Ez dugu ahaztu behar pandemia baten aurrean gaudela eta, zoritxarrez, egoera ez dela normala.



NEREA ARRIZABALAGA
37 urte
Turismo zinegotzia

Herri turistikoa da geurea. Aste Santua bisitaririk gabe igaro genuen. Nola aurreikusuten dizue aurtengoan uda?

Dudarik gabe uda desberdina izango da. Azken urteetan herriak Donejakue bidea egiten zebiltzan bisitari ugari jaso ditu, munduko bazter guztietakoak. Aurten inguruko turistak gailenduko direla uste dugu, Euskal Herrikoak, Estatukoak eta europarrak neurri txikiagoan.

“Guztiontzat egon daiteke lekua zentzuz jokatzen badugu, bertakoentzat eta kanpokoentzat”

Turista kopurua asko jaitziko da aurten. Hirugarren sektoreak jasango duen beharaldiari aurre egiteko plan edo neurririk izango al da?

Hilabete gogorak izan dira zerbitzuen sektorearentzat. Itxialdi amaieran martxan jarri zen hobaridun bonuen salmentak (Kuttuna bidez) oso emaitza ona eman du; parte hartu dutenak pozik azaldu dira ekimenarekin, herritarrek herrian kontsumitzea ezinbestekoa da, eta ez da baztertzeko antzerako zerbait errepikatzea epe motzean edo udazken aldera.

Alojamenduei dagokienez, hasita daude erreserbak jasotzen eta baita bezeroak ere; ondorengo hilabeteetan jendeak aglomerazio gabeko egonal-

diak nahiagoko ditu eta nekazaritza-turismoa aukera paregabea da horretarako. Debatziar Biziberritzeko Plan Integrala egin dugu, eta hor jasotzen dira neurriak.


Erromesen aterpetxea etxegabeak hartzeko aterpetxe bihurtu du Udalak azken hilabeteotan. Noiz arte? Uda honetara begira lehengo funtzioa beteko al du berriz?

Aterpetxearen funtzionamendua boluntarioek daramate, asko eta asko arrisku taldekoak dira eta aurtengo udan ez zabaltzea erabaki dute, beren segurtasunagatik.

Gaur egun bi pertsona etxegabe daude, eta alarma egoera amaitzeraino aterpetxea irekita egongo da.

Baliteke egoerak hartara beharturik tokiko edo hurbileko turismoa egin behar izatea aurten. Nola egin aurre Debak dituen hutsuneei? Alojamentu, garraio publiko eta aparkaleku falta...

Ez da gai erraza. Alojamentu-eskaintza motz geratu da azken urteetan, aurtengorako eskaintza handitzea orain ezinezkoa da. Garraio publikoan sasoi eta ordu zehatz batzuetan maiztasuna igotzea nahi dugu, baina ez dago gure esku. Berriz ere Danobateko aparkaleku txukundu eta erabilgarri egongo da, baita eskoletako patioak ere bertakoentzat. Guztiontzat egon daiteke lekua zentzuz jokatzen badugu, bertakoentzat eta kanpokoentzat.



IDURRE ARANBERRI
45 urte
Zumardi Pentsioa

“Deba herri turistikoa da, baina momentu honetan ez gaude egoera onenean, pentsioa bakarrik dagoelako zerbitzu hori ematen”

zuen egunerokoan?

Bete-betean eragin digu, oso gogorra da. Gure urteko hilabeterik garrantzitsuenak dira, jendea Debara etortzen den garaia. Kezkarik handiena sortzen diguna da ez dakigula egoera honek noiz arte iraungo duen.

Turismo eredua asko aldatu da azken urteotan (Airbnb, legez kanpoko alokairuak, etxebizitza trukea...). Nola izan lehiakorra horrelako testuinguru zabal batean?

23 urteko esperientzia daukagu. Beti izan gara lehiakorrak pentsioa berrituz eta abar. Orain dela 18 urte guk proposatu genion Udalari Amillagan hotela egitea, baina arau aldaketa etorri zen eta ezin izan genuen. Amillagako urbanizazioan

hotela ipini dute gure iritzia- ren aurka, beraz debarrok garbi eduki guk ez dugula hotelik egingo. Gaur egungo bezeroen exijentzia ikusita ez da toki egokia.

Urte askoan zehar, Deba eta inguruko herri turistikoetan udatiarrentzat etxebizitzak alokatu izan dira, baina azken urteetan badago etxe turistiko bezala alokatzeko aukera, Booking, Airbnb... lehiakortasunari eusteko guk ere apustu egin genuen.

Eusko Jaurlaritzak lizentzia eman zigun inongo arazorik gabe, gero etorri zen Donostiako araudia... Une honetan Deban, beste herri gehienetan bezala, ez dago araudirik, baina araudia atera bitartean, Gipuzkoako herri guztietan posible dira etxebizitza turistikoak, Deba eta Pasaian izan ezik. Gure lanbi-

dea turismoa izanik, horrek zuzen-zuzenean eragin digu gure ekonomian.

Herri turistikoa da gurea, zalantzarik gabe. Zelan dago sektorea herri honetan? Ba al daukazue mezurik norbaiti helarazteko (bezeroei, erakundeei...)?

Bai, Deba herri turistikoa dela iruditzen zait, baina momentu honetan ez gaude egoera onenean, pentsioa bakarrik dagoelako zerbitzu hori ematen. Kontuan izan behar dugu turismoak herritar askorentzat duen eragina, dendariak, tabernariak, taxistak... herritar asko gaude inplikatur.

Nire mezua Udalarentzat da, pisu turistikoaren araudia lehenbailehen egitea eskatu nahi nioke, herriko behar guztiak kontuan izanik.

Konturatu orduko iritsi da udako denboraldia. Zer berri Zumardi Pentsioan? Zabalik dago?

Pasa den martxoaren 15ean itxi genuen, momentu honetan irekita dago, baina hirugarren fasera arte ez daukagu bezerorik. Dena ondo badoa uztaile eta abuztuan lan egingo dugula ematen du, nahiz eta beste urteetan bezala ez izan.

Nola eragin dizue egun bizi dugun osasun-krisiak



GORKA AGIRREAZALDEGI
38 urte
Itxaspe kanpina

“Nahiko denboraldi normala izango delakoan gaude. Edukiera-murrizketak ez digu eragingo ez kanpineko partzeletan ez bungalowetan”

Gaur egun bizi dugun osasun-krisiaren ondorioz, zer neurri hartu beharko dituzue kanpinean? Azalduguzu pixka bat zuen egoera, mesedez.

Harreran “check-in” egiteko prozesua orain lehi batetik egiten dugu, eta horrela bezero gutxiago izango ditugu harrera eta supermerkatu barruan. Gainera, bereizteko manparak ipini ditugu, hiru manpara 1.5 m x 1 m-koak.

Kanpinean zehar hogeitabat gel-pote jarri ditugu, jendeak eskuak desinfektatzeko gel-a erabiltzeko. Kartel ugari ere jarri dira bezeroei distantziak man-

tentzeko eskatuz, eta barbakoa zonan ditugun mahaiak ere elkarrengandik legeak eskatzen duen bi metroko distantziara jarri dira.

Bestetik, garbiketa eta desinfekzio-prozesuak ere indartu ditugu, eta, adibidez, egunean sei aldiz pasatzen gara parke, komun, dutxa, mahai eta abarrak desinfektatzera.

Herrialdez aldatzeko zailtasun edo debekua, kanpineko edukiera edo erabiltzaile kopurua txikitu beharra, segurtasun-neurri zehatzak... zer nola-ko uda (edo urtea) aurrei-

kusten duzue Itxaspen?

Egia esateko nahiko normala izango delakoan gaude. Izan ere, guri pertsonalki edukiera-murrizketak ez digu eragingo kanpineko partzeletan, ezta bungalowetan ere.

Zalantza eta ziurtasunik ezaren garaiotan... Ba al daukazue mezurik norbaiti helarazteko (bezeroei, erakundeei...)?

Gogoraraziko genieke zentzuz eta zintzo jokatzeko garaiak direla, eta batak bestea, elkar, lagundu beharko genukeela: bezeroek, negozioetako jabeek eta erakundeek.

Konturatu orduko iritsi da udako denboraldia. Zer berri Itxaspeko kanpinean? Zabalik dago? Noiztik?

Joan den ekainaren 5ean ireki genuen gure kanpina. Lehenengo bi asteetan asteburuetan irekitzeko asmoa dugu. Ekainaren 19tik aurrera, berriz, egunero izango dugu irekita, irailaren bukaerara arte.

Eskerrak ematera gatoz, irakurle maiteok, zuengatik izango ez balitz, ez baikenuke Berriketan-erako atala egingo. Zuek motibatzen gaituzue. Guk gure ahalegin guztiak egiten ditugu, zuoi, irakurleoi, guk egiten dugun atala gustatzeko. Ikasturte honetan hainbat gauza egiten ikasi dugu prentsan: iritzi artikulua, inkestak, elkarrizketak... Gure gomendioa, institutuan zaudenean prentsa irakasgaia hautatzea da, gauzak ikasteaz gain, besteen pentsatzeko erak ere partekatzen dira eta, gainera, idaztea gustatzen bazaizu oso ondo etorriko zaizu. Gehiago luzatu gabe, eskerrik asko eta hurrengora arte! Ondo igaro oporrak!

HAUSNARKETAK

Itxialdiaren ostean, ikasleek ere eduki dute zer pentsa, gaur, inoiz baino luzeagoa baita iraganaren eta etorkizunaren arteko amildegia.

Zer baitetarako balio izan al digu konfinamenduak?

Dudarik gabe, denok botatzen ditugu faltan lagunen besarkadak, afariak, hondartza egunak, denok batera geundeneko barreak... Lehen, agian, ez genituen horrenbeste baloratzen horrelako momentuak. Orain, aldiz, lehen inportantziarik ez zuten momentu horiek inoiz baino garrantzitsuago bihurtu dira.

Hala ere, ezin dira ezkutatu gauza txarrak, gertuan ez duzun familia ezin bisitatzea, lehen aipatu dudan bezala lagunak ez ikustea eta, bestetik, eskola. Eskolaren atala ez da hain erraza azaltzeko, bere alde onak ere baditu eta. Adibidez, ordenagailuen erabilpena handitzeak badu bere alde ona, orain teknologia oso garrantzitsua baita.



Baina horrenbeste ordu ordenagailuaren aurrean pasatzea ona al da?

Azkenik, konfinamendu honetan uste dut denok izan ditugula gure gorabeherak. Egun batzuetan oso pozik egon gara eta beste batzuetan, aldiz, izugarritzko beherakadarekin. Baina optimistak izan behar gara eta jakin honetatik ere irtengo garela, nahiz eta lehengo egoerara ez itzuli. Hori ez baita helburua, helburua bizitza eta gizarte hobea bat eraikitzea da honelako egoera gehiagori aurre egiteko, bai hobeto eta baita errazago ere. Hau dena esanda, animo denoi!

Egoera berri honen aurrean

Covid-19ak ekarri duen egoera hau dela eta, gauzak pentsatzeko denbora asko eduki dut. Autoestima altuago izatera iritsi naiz. Kirola egin dut... baina ez da dena ona izan, mundu guztiak bezala nire beherakadak izan ditut, eta hau inoiz ez zela bukatuko ere pentsatu dut. Lagunen falta sumatu dut, hondartzatik bueltatxoak, haiekin barreak bota... eta oraindik elkar ukitu ezin izateak amorrua ematen dit, inoiz baino besarkada handiagoa emango niekeelako.

Hasiera batean, uste nuen egoera hau igaro ondoren

jendeak hobeto jokatu zuela kalera irtetea, arauak bete, enpatia izan baina ez da horrela izan, mundu guztiak ez ditu zehatz-mehatz bete (ni ere zaku horretan sar naiteke, nahiz eta saiatu naizen) eta, egia esan, ulertzen dut. Ezin gaituzte bizitza guztia kaiolan sartuta eduki, bakoitzak bere bizitza egin behar du modu batera edo bestera, bestela zoratu gaitetzke! Jende askok itxialdi honetan asko sufritu du... Biribilduz, uste dut egoera honetatik gauza onak eta txarrak jaso ditudala, beste esperientzia bat.



Prentsa tailerra 2019-2020

Leire Acebes, Nora Ait Akki, Kerman Aizpurua, Ione Aranberri, Ane Castillo, Urko Garcia, Kimetz Oñederra, Nadia Peralvo, Ibai Perez, Amalur Ponce, Nerea Urbizu, Maddi Urkiri eta Haizea Zubimendi.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzaileak:



babesleak:



Nola joan da itxialdia?

Mendatako zenbait ikaslek beraien itxialdia nola joan den kontatu digute:

- 1.- Espero zenuen bezala joan al da itxialdia?
- 2.- Zeren falta nabaritu duzu gehien?
- 3.- Nola moldatu zara ikasketekin?
- 4.- Errazagoa ala zailagoa iruditu zaizu Internet bidezko ikasketa prozesua?
- 5.- Zer sentitu duzu kalera ateratzean, lagunekin egotean...?
- 6.- Zerbaitetaz ohartzeko balio izan dizu konfinamenduak? Hala bada, zertaz?



Ainhoa Loidi

14 urte, DBH 2. maila

- 1.- Ez, espero nuena baino askoz luzeagoa izan da.
- 2.- Lagunen falta, batez ere.
- 3.- Hasieran ongi, baina itxialdia luzatzen joan den eran, gero eta aspergarriagoa egin zait ordenagailu aurrean lan egitea.
- 4.- Zailagoa, baita aspergarriagoa ere.
- 5.- Izugarriko poza sentitu dut lagunekin.
- 6.- Bai, jendearekin egotearen garrantziaz konturatu naiz. Gainera, kotxerik eta kutsadurarik gabe naturari egin diogun mesedeaz ere ohartu naiz.

1.- Bai.

2.- Kalera irtetea.

3.- Ez oso ondo, ordenagailu bakarra daukagulako.

4.- Zailagoa.

5.- Ondo sentitu naiz.

6.- Ez.



Urko Ruiz de la Torre

12 urte, DBH 1. maila



June Lizaraburu

15 urte, DBH 3. maila

- 1.- Ez. Hasieran egun osoa etxe barruan sartuta egotea askoz ere gogorragoa izango zela uste nuen, baina egunak pasatu ahala ez nintzen konturatzen eta azkar pasatu zitzaidan itxialdia. Argi dago asko aspertzen nintzen egunak ere eduki nituela, baina orokorrean ondo.
- 2.- Amonaren etxera bazkaltzera joatea, futbol entrenamenduak edukitzea eta partidak jokatzera, lagunekin kalera irtetea.
- 3.- Ondo. Egia esanda, oso ondo, hasieran pixka bat nahastuta nenbilen, baina orain ongi.
- 4.- Zailagoa izan da ulertzeko eremuan, baina gero azterketak eta galdeketak errazak izan dira.
- 5.- Sentimendu arraroa izan da, baina sentimendu polita. Gogo handiarekin nengoen eta normala da, azken finean, ondo sentitzea.
- 6.- Bai. Azkenean gauza batzuk ez nituela baloratzen. Orain bai, baloratzen ditut, adibidez, amonaren janaria.

1.- Espero baino hobeto, agian.

2.- Familia eta lagunak.

3.- Ahal zen heinean ondo.

4.- Gauza batzuk errazagoak eta beste batzuk zailagoak, gorabeheratsua da.

5.- Poza, askatasuna, bakea...

6.- Momentu guztiak topera bizi behar ditugula, edozer pasa daitekeelako.



Beñat Iriondo

16 urte, DBH 4. maila

EKAINAK 27, LARUNBATA

-11:00. **Bisita gidatua: "Lastur familiar"**.
Informazioa: www.geoparkea.eus.

UZTAILAK 3, OSTIRALA

-22:00. **Antzerkia: "Matriuska"**, Euskal Jolas pilotalekuan (*Iturri ondoan*).

UZTAILAK 10, OSTIRALA

-22:00. **"Iturrian Jazz"**: ipuin kontaketa eta jazz musika inprobisatua, Euskal Jolas Pilotalekuan (*Iturri ondoan*).

UZTAILAK 15, ASTEAZKENA

-22:00. **Asteazken akustikoak: Jazzez Blai**, Kultur Elkarteko plazan.

UZTAILAK 17, OSTIRALA

-22:00. **"Begiradak"** (literatura eta irudien proiektzioa), Euskal Jolasen (*Iturri ondoan*).

UZTAILAK 22, ASTEAZKENA

-22:00. **Asteazken akustikoak**, Kultur Elkarteko plazan.

UZTAILAK 24, OSTIRALA

-22:00. **Bertso saioa**: Unai Iturriaga, Nerea Ibarzabal, Miren Amuriza eta Julio Soto, Euskal Jolas pilotalekuan (*Iturri ondoan*).

UZTAILAK 29, ASTEAZKENA

-22:00. **Asteazken akustikoak**, Kultur Elkarteko plazan.

Lehiaketa

-**Euskararen aldeko lema lehiaketa** antolatuta du Zuhatza Euskara Elkartek. Ekainaren 29an, astelehena, amaitzen da lanak aurkezteko epea (12:00ak arte). Oinarriak ikusteko, aldizkari honen bigarren orrialdera jo dezakezue.

Beka deialdia

-**XV. Tene Mujika beka** sortu dute Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak. 6.000 euroko diru-laguntza emango diote irabazleari. Abenduaren 9an amaitzen da proiektuak aurkezteko epea. Informazio gehiagorako: aldizkari honen 5. orrialdea, www.deba.eus ataria eta artxiboa@deba.eus posta elektronikoa.

Udalekuak

-Herriko hainbat elkarte udaleku eskaintza egin dute udarako: Kulunka Dantza Taldeak, Yako Surf Eskolak, Ingeles Eskolak... Interesa izanez gero, jarri harremanetan eragile bakoitzarekin (Facebook-en bitartez, adibidez).

Uda kirola 2020

-**Uda kirola 2020 (Surf-Bodyboard-Arraun Surf)**; 6-16 urte bitarteko haur-gazteei zuzendutako ikastaroak -egungo egoerara moldatutako kirol eskaintza-. Ikastaroen iraupena 5 egunekoa da eta lehenengo txandei ekainaren 22an emango diete hasiera. Izena emateko edota informazio gehiago behar izanez gero, jarri Debako Turismo bulego-arekin harremanetan, 943 19 24 52 telefonora deituz edo turismoa@deba.eus posta elektronikora mezua idatziz.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **ekainak 29, 30.**

uztailak 1, 2, 17, 18, 19.

Burgoa Zuazo: **uztailak 3, 4, 5, 13, 15, 15, 16.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: ekainak 20 eta 27 / uztailak 18 eta 25

BURGOA ZUAZO: uztailak 4 eta 11

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12

G

**JOXEAN GALDONA
AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak


Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

Jarri zure publizitatea
Berriketari aldizkarian!

Zuhatza

943 191 383

berriketan@zuhatza.com

LIZ.-ZK.: 3 

Taxi Alain Deba

www.taxideba.eu **636 135 008**
alain@taxideba.eu

MARIJE CASTRO IRIBARREN 

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

MASAJISTA **28 URTEKO ESPERIENTZIA**
Tel.: 677 557 615 **DEBA**

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

A D

ASESORIA DEBA
Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ASKETA, S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 2105/049
NIVEL 2

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel. faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

ieraenea
"maite ditut nire/gure basorrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Telf: 943 55 95 20 - E-mail: ieraenea@gmail.com

GENOVEVA
Arraindegia 

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

k
kutxabank

sasoi
ekoenda,
dietetika,
belarrenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



Euskal ihintza
loreaken bizitza
eguzki printza
doakoa balitza
maitasun mintza
herio baldintza
erabili ezean hitza
alferrik gabiltza

Euri garra
sustraien beharra
ezagutza indarra
galdurik iparra
ele zaharra
oroimen bakarra
izanaren negarra
galbide azkarra

Ezjakina isildu
jardunean zaildu
itzala umildu
ekira hurbildu
lotsa kikildu
indarrak bildu
hitzetan amildu
euskaran murgildu

Korda dardara
mihi algara
astindu ganbara
uxatu ikara
gure erara
euskaldun gisara
euskaradun gara
EUSKARA

Zigor Agirre

erabili ezean hitza
alferrik gabiltza

Zuhotza
euskara elkarteak deba